

Noaia !!

www.noaia.com



Larunbat honetan,
Maddi Oihenarten kantaldia



Irati Lertxundi eta Sarai Lizaso,
Gipuzkoako batel ligan txapeldun

BetErriKo LibuRua 2007

LitEraTur AiPameNa, XII. eDizloA



Andoaingo Bastero Kulturguneko aurkezpen artoa

Maiatzak 17, larunbata, eguerdiko 12:00etan

Sarrera irekia. Nahi duen oro dago gonbidatuta



- 2007an argitaratutako liburuen artean irakurleek gogokoena izan duten lana sarituko da.
- Besteak beste, bertan izango da aipamena jasoko duen idazlea; ekitaldiaren amaieran, hitza hartuko duena.
- Musika, letra eta hitza; sortzaileengandik hartzaileengana.

ORAIN ARTEKO LAN SARITUAK, URTEZ URTE

1996 Joxean Agirre Elgeta	1997 Ur Apatategi Izidin Gauak eta hiriak	1998 Koldo Izagirre Nik ere Germinall' egin gura nuen aldarni	1999 Lourdes Oñederra Eta amakume-ari sugeak esan zion	2000 Ramon Salazarbitoria Gorde nazazu lurpean	2001 Joseba Sarrionandia Lagun izoztua	2002 Anjel Lertxundi Zorion pertek-tua	2003 Bernardo Atxaga Soinujolearen semea	2004 Pako Aristi Gauza txikien liburua	2005 Juan Kruz Igerabide Hauts bihurtu zineten	2006 Karmele Jalo Amaren eskuak

Maddi Oihenart kantaria
Maiatzak 10 larunbata, 22.30h, Suteqin

Sarrera zozketa

Nola du izena

Maddi Oihenarten

azken diskoak?

Erantzun egokia e-postaz bidaltzen digutenean artean, lau sarrera zozketa egingo dugu. Bina sarrera eskuratuko dituzte zozketan nagusitzen diren bi herritarrek. erredakzioa@noaua.com

Maiatzaren 9an ostirala jakinaraziko ditugu irabazleen izen-abizenak www.noaua.com webgunean.



Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea. Laguntzailea: NOAA! Kultur Elkartea.

Albisteak iruditan !!

Ikasketak euskaraz burutzeko kanpaina aurkeztu berri da

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu eta ondorengo ikasketak euskaraz egitea sustatzeko kanpaina aurkeztu zuten maiatzaren 6an Buruntzaldeko Udaletako euskara batzordeek. DBHn ikasketak euskaraz burutu arren, ez baitago zeharo bermatua hizkuntza berean ikasten jarraitzeko aukera. Horretan ari dira, hezkuntza eskaintza eta lan mundua euskalduntzea bultzatzen. Gogoratu zutenez, euskara plana abian jarri duten hamaika enpresa daude. Buruntzaldeko ikastetxeetako ikasketa aukeren berri ematen duen triptikoa kaleratu dute, matrikulazio garaia iritsi baita. Batxilergoetako aurrematrikulazio-epaia maiatzaren 9an itxiko da. Zikloetakoa ekainaren 2tik 13ra izango da.



IRUDIAN, URNIETAKO ETA ASTIGARRAGAKO EUSKARA BATZORDEETAKO LEHENDAKARIAK ETA BURUNTZALDEKO IKASTETXEETAKO ORDEZKARIAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan
 Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
 Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.
 Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.
 Tirada: 2.600 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
 Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

- USURBILDAR ARRAUNLARI GAZTEAK **5. OR.**
- AZKEN PLENOKO ERABAKIAK **6. OR.**
- USURBIL BIZIRIK-EN MOZIOA **8. OR.**
- MOTORREK ITVA PASA BEHAR DUTE **9. OR.**
- JEXUX ARTZEREN OMENEZKO SAIOAK **10. OR.**
- DANBORRADEN LEHEN ENTSEGUAK **12. OR.**
- USURBIL-AZKOITIA ARTEKO PARTIDAK **15. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako batelen liga irabazi dute

Sarai Lizaso eta Irati Lertxundi arraunlari gazteak

Orioko infantil kadeteetako neskek Gipuzkoako batelen ligako txapelketa irabazi dute. Arraunlarien artean, Sarai Lizaso eta Irati Lertxundi usurbildar gazteak aurkitu ditugu. Pozik dira garaipenarekin. Azaldu digutenez, astero bost egunez entrenatzen dute. Badute meritua 14 urteko gazte hauek.

Karkara Orioko aldizkariak apirilaren 25ean aipatzen zuen bezala, “sekulako garrantzia du garaipenak, aurreneko aldia baita Orioko neskek arraunean liga bat irabazten dutela”. Ez hori bakarrik. Orio Arraun Elkarteak bateletan lortzen duen 200. garaipena izan da hori. Arraunlarien artean bi usurbildar: Sarai Lizaso eta Irati Lertxundi.

Aitor Agirre, mutilen taldean

Infantil kadeteetako mutilen taldean ere bada usurbildar bat Aitor Agirre.



INFANTIL KADETEETAKO NESKAK GARAIPENA DSPATZEN. BEHEKO ILARAN, EZKERRETARA LEHENA SARAI LIZASO ETA HIRUGARRENA IRATI LERTXUNDI.

Gipuzkoako txapelketan, Orioko infantiletako mutilak 5. izan ziren eta kadete-

ak, berriz, zilarrezko dominarekin itzuli ziren etxera.

“Astean bost egunez entrenatzen dugu”

Aita eta osaba arraunean ibilitakoak dira”, hala esan digu Sarai Lizasok. Beraz, etxetik datorkio arraunerako zaletasuna. Baina arraunlari izateko erabakia duela lau urte hartu zuen. “Udalekuetan ibili nintzen lehen aldiz eta gustura aritu nintzen. Begiralea Jose Luis Barrenetxea zen, orain Orion gure entrenatzailea dena”.

Udalekuetatik etxera itzultzera joan, amarekin batera Orioko klubera joan zen eta ordutik hona, lau urte egin ditu arraunean, batelean eta aulki mugikorrean.

Etxekoan laguntzarekin ibiltzen dira Orio eta Usurbil artean, joan eta etorrian. “Aginagan osatu beharko duzue talde bat”, adierazi diegu, baina biak, irrifar batekin erantzunez, argi utzi digute Orion oso pozik daudela.

Gipuzkoako batelen liga txapelketa

irabaztea ez da lan erraza izan. Aurkari gogorrenak zumaiarrak izan dira. Sarai Lizasok adierazi digunez, 10 bat estropadetan lehiatu eta gero irabazi dute Gipuzkoako txapelketa. Eta estropada bakoitzean, 1.000 metro osatu beharreko lana. Bost bat minututan, beraz, dena eman behar.

Pozik daude garaipenarekin Sarai eta Irati. Eta aurrera begira, arraunean jarraitzeko gogoz. “Orain aulki mugikorrean ibiltzeko garaia da”. Beraz, txapelketa bat bukatu orduko, bestea hasi behar.

Gogorra eta lotua den kirola da arrauna. Baina bi usurbildar gazteak gustura ibiltzen dira. Lagun onak egin dituzte eta argazkiak ateratzen gientuen bitartean Iratik esan digunez, “astean bost egunez entrenatzen dugu”, eta egunean ordubete inguru. Gero



IRATI LERTXUNDI ETA SARAI LIZASO GAZTE ARRAUNLARIAK.

han geratzen dira, kontu kontari, denborapasan.

Babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko zerrendak aho batez onartu ditu udalbatzak

Olarriondon eta Ugartondon eraikitzeak diren babes ofizialeko etxebizitzaren zozketari begira pauso berri bat eman du udalbatzak. Pasa den apirilaren 29ko hileroko ohiko plenoan, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartu zituen aho batez. Babes ofizialeko 168 etxebizitza zozketatuko dira eta onartutako 359 eskari daude. Arrazoi ezberdinak tarteko, beste 61 baztertu dira.

Duela urtebete zabaldu zen babes ofizialeko etxebizitzetan izena emateko epea. Apiriletik maiatzera arte, 420 eskaera aurkeztu zituzten herritarrek. Zenbait eskaera zuzendu edo osatu eta udal idazkariak guztiak banaka aztertu ostean, urte hasiera honetan onartu ziren Olarriondon eta Ugartondon eraikitzeak diren 168 etxebizitzaren behin behineko zerrendak. 362 eskari onartu eta 58 baztertu ziren orduko hartan.

Zerrendak publiko egin ziren unetik alegazioak aurkezteko epea zabaldu zen. Hamar erreklamazio egin ziren eta eskaerak aurkeztu zituzten bost herritarrek uko egin zuten. Erreklamazioak berriz ere banaka aztertu ondoren, osatu dira behin betiko zerrendak; azkenean, 359 eskaera onartu dira eta 61 baztertu.

Zerrenda horiek dira apirilaren 29ko ohiko pleno saioan, udal ordezkariak aho batez onartu zituztenak eta etxebizitzaren zozketarako kontuan hartuko direnak.

Behin betiko zerrendak onartzearekin batera, alegazioak aurkeztu dituzten herritarrei erantzun zaie. Udaletxeko iragarki-taulan ikusgai dira onartu zein baztertutako eskarien zerrendak eta erreklamazioek jasotako erantzunak.

Prozesua honaino iritsita, orain, etxebizitzaren zozketa noiz egingo den



APIRILAREN 29KO UDALBATZA PLENOAN, BEHIN BETIKO IZAERA EMAN ZITZAION BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOKKETARAKO OSATU ZEN ZERRENDARI.

jakitea falta da.

Tasatuen udal ordenantza

2007ko otsailean hasieraz onartu zen udal etxebizitza tasatuen ordenantza. Azken ohiko pleno saioan duela urtebete onartutakoa bertan behera utzi eta berriz hasieraz onartu zen. EAE-ANVtik jakinarazi zenez, lege aldaketa batek ordenantza horretako zenbait artikulua aldatzea eragin duela. Udal talde guztiak ordenantza hasieraz berriz onartzea babestu zuten, EAJ-PNVko zinegotziak izan ezik, aurka bozkatu baitzuen.

Orain, jendaurrean ikusgai egongo da Hirigintza Departamenduan. Erreklamaziorik aurkeztu nahi duenak, horretarako 30 eguneko epea du.

Txernobili buruzko mozioa

Alor eta gai oso ezberdinei lotutako bost mozio aurkeztu ziren, hileroko azken pleno saioan. Horietatik lau onartu ziren. Bosgarrena, Chernobil elkarteak aurkeztutakoa mahai gainean utzi eta aurrerago eztabaidatzeko-tan gelditu ziren. Hain zuzen, mozio

testu horretako laugarren puntuak aipatzen dituen lehentasunekin eta dirulaguntzak bideratzeko moduarekin desados agertzen ziren. Sortutako zalantzak argitutakoan, testua berriz plenoan lantzeko asmoa dute.

Kutxako ordezkariak

Usurbilgo interesen alde egiteko aukera gisa aurkeztu zuen EAE-ANVko urte hasierako plenoan, Kutxako Kontseilu Nagusian ordezkariak izateko proposamena. Aipatu ordezkariak gauzatzeko, Usurbil, Lezo, Oiartzun eta Bergarako udalek bat eginda elkarte bat osatzeko asmoa zuten. Azken udalbatza saioan, EAE-ANVtik gai horretan arauak maltzurki erabili direla adierazi zen. EA eta EAJ-PNVren jarrera salatu zuten, Usurbilgo Udalak beste hiru herriekin osatutako elkarteari zegokion ordezkaria kendu eta Beasainek beste herri batzuekin osatutako talde bati bigarren ordezkaria emateko asmoa izateagatik.

Jubilatuen egoitza berriko taberna eta jangela zerbitzuak, lehiaketara

Gure Pakea elkarteak gaur egun erabiltzen duen lokala utzi eta Artzabal base-rian kokatuko da laster. Bertako taberna eta jangela zerbitzuen kudeaketa esleitzeko lehiaketako oinarriak zehaztu eta onartu ditu jada udalbatzak aho batez.

Artzabal baserriko portxea, sarrera eta behe oina. Jangela, kafetegia, sukaldea, biltegiak eta komunak. Jubilatuen Egoitza berriko zerbitzu horiek guztiak emakida administrati-boaren erregimenean eman eta lehiaketa irekira deitzea adostu zuen udalbatzak pasa den apirilaren 29ko plenoan.

Lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, interesatuek hamabost eguneko epea izango dute proposamenak egiteko.

Zerbitzua kudeatzeko hitzarmenaren garapena, ihardunbidea eta esleipena eta lizitaziorako oinarri bezala erabiliko diren preskripzio teknikoak



ARTZABALEN KOKATUKO DA JUBILATUEN EGOITZA BERRIA. ORAINDIK EZ DA IREKIERA EGUNA ZEHAZTU.

onartu ditu udalbatzak. Baita baldintza juridiko, ekonomiko eta administrati-boen plegua onartu ere.

Zerbitzuaren kontratazio prezioa berraztertze konpromezua hartu zuten indarraldiaren lehen urtean. Ez baitago azterketa ekonomikoa egiteko daturik.

Udaleko langileen soldatei KPI igoera aplikatu zaie

Ehuneko 4,2ko igoera aplikatu zaie udal langileen ordainsariei. Aho batez onartu zuen udalbatzak pasa den apirilaren 29ko plenoan. Erabakia behin behinekoa da, ordea, eta ez du eragiten aipatu langileen lan hitzarmena adosteko negoziazioetan. Igoera hau urte hasieratik aplikagarria da.

Kontratazio Mahai Iraunkorra eratuko da

Aho batez onartu zen. Lehendakaria Xabier Mikel Errekondo izango da. Ordezkoa, Juanjo Olaizola. Udal teknikari ezberdinak ere bertan izango dira. Udal talde politiko bakoitzeko ordezkari banak ere mahai horretan parte hartzeko aukera izango du.

Sahararentzat autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuten aho batez

Sahararren autodeterminazio eskubidea aldarrikatu, Bake Planaren alde egin, Giza Eskubideak errespetatu eta sahararentzat laguntza bultzatzea. Horiek dira Aralar udal taldeak azken plenoan aurkeztu zuen mozioaren oinarri nagusiak. Aho batez onartu zuten.

Erreferendum bidez, sahararrek duten autodeterminazio eskubidearen alde egiten da mozio horretan. Nazio Batuen Erakundeak babestuta eta berme guztiekin, hartara, amaitu gabe duten deskolonizazio-prozesua gauza dezaten. Gatazkaren konponbidea

“Mendebaldeko Sahararen determinazio librerako Bake Plana”-ren baitan kokatzen du Aralarrek aurkeztutako testuak. Giza Eskubideen errespetua ere eskatzen da; horrekin lotuta, preso politiko saharar guztiak berehala askatzea galdegiten da.

Laguntza eta elkarlana

Jakina da bestalde, Tinduf-eko errefuxiatu kanpamenduetako sahararrek zer bizi-baldintzetan dauden. Egoera onartezin horri aurre egiteko laguntza humanitarioa eta elkarlana bultzatzeko dei egiten da.

Helburu horiek guztiak betetzen

dituzten jardueretan parte hartzeko konpromisoa ere hartzen da.

Atzera begira jarrita, 1975. urtean Mendebaldeko Sahara Maroko eta Mauritaniako gobernuei, Espainiako Gobernuak legez kanpo eman ziela gogorarazten da. Eta horrek sahararrei deskolonizazio-prozesua amaitzea eragotzi ziela. Modu horretan, 32 urtez sahararrek pairatu behar izan duten tragedia ahalik eta azkarren konponetzea opa zaie, elkartasuna adierazi eta Fronte Polisarioa zorientzearekin batera. Gogorarazten dutenez, sufri-mendu handia eragin baitiete milaka pertsona erugaberri.

Atez ateko bilketari buruz Usurbil Bizirik-ek aurkeztutako mozioa gehiengo osoz onartu zen

Hondakinen alorrean, Herrialde Katalanetan abian jarritako esperientzia kontuan hartuta Usurbil Bizirik plataformak bi eskaera egin zituen, azken plenoan aurkeztu eta onartu zen mozioan: Udalari, atez ateko bilketa sistema martxan jartzearen aldeko jarrera adierazi dezala, eta Eusko Legebiltzarrari, gaikako bilketari lotutako legea onartzea.

Bestelako hondakinen kudeaketa lantzeko asmoa plazaratu zuen EAE-ANVko, prozesu partehartaile bat abian jarrita. "Informatu, kontzientziatu, sentsibilizatu", Xabier Mikel Errekondoren hitzetan.

Horren aurrean, herria zain zegoenez, pozgarrizat jo zuen Aralarrek plan bat dagoela jakitea. Kataluniako esperientziari lotuta, Joxe Ramon Furundarenak zioenez, "botikekin bezala. Bestetan ona izan bada, guk ere erabili nahi dugu". Amaia Goyaranek oso positibotzat jo zuen proposamena, baina "ahula" bere esan-

netan, kostuaren eta finantziabidearen berri ez izateagatik. "Segituan lanean hasi behar dugu. Sistema berria jarri behar bada, ondo jarri dadila", zioen sozialistak.

EAJ-PNVko zinegotzia ere baikor. "Birziklatzeko bide guztiekin ados gaude", adierazi zuen. Aldiz, gaia Mankomunitatetik bideratzea egokiago ikusten zuen.

Kataluniako eredia hona ekartzeko modukoa ote zen zalantzakor agertu zen Luis Mari Ormaetxea. Lan egitera deitzen zuen. "Guk herrian ez dugu esperimenterik nahi", adierazi zuen.

Zuzen erantzun zion EAE-ANVko zinegotzi Imanol Azpirozek: "Guk ez dugu erraustegiaren eragina esperimentatu nahi".

Gipuzkoako udaletxeetan mozioak aurkeztu ari dira. Batzuetan denek bat egin dutela eta, Azpirozaren esanetan, "aurka bazaude saiatuko gara konbentzitzen hau dela bide egokiena" zioen. Usurbil Bizirik-eko kideak ziren pleno aretoan eta haietako batek hitza hartu zuen. Herrialde



ATEZ ATEKO SISTEMA AHALIK ETA AZKARREN EZARTZEA ESKATU DU USURBIL BIZIRIK PLATAFORMAK.

Katalanetan hondakinen inguruan batasun politikoa lortu zela gogoratu zuen. Oraingoz, Usurbilgo Udalean lortu ez dena. EAE-ANVko, Aralarrek eta PSE-EEK babestu bai-tzuten mozioa. EA aurka agertu eta EAJ-PNV abstentitu zen.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduko auzipetuei elkartasuna adierazi zitzaien

Auzitegi Nazionalan hasi den Amnistiaren Aldeko Mugimenduen aurka abian jarri den auziko 27 auzipetu zein militanteei elkartasuna adierazten dien mozioa aurkeztu zen apirila amaierako ohiko pleno saioan.

Aipatu mugimendua kriminalizatzeko asmoaren aurrean, lanean jarraitzeko duten zilegitasuna aldarrikatzen da. Auzia itxi eta debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea

galdegiten da, Auzitegi Nazionala desagertzea eskatzearekin batera.

EAE-ANV eta Aralar alde, gainerakoak aurka

Epaiketak eragindako gastuei aurre egiteko laguntzarako dei egiten da. Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Mugimenduen aurkeztutako testuak EAE-ANV-ren eta Aralarren aldeko bozkak jaso zituen. Gainerakoak aurka ziren.

Gehitu Elkarteak maiatzaren 17rako aurkeztutako mozioa

Maiatzak 17, Homofobiaren eta Transfobiaren Aurkako Borroka Eguna izendatzea proposatzen du Gehitu Elkarteak erakunde ezberdinetan aurkeztu ari den mozioak. Hilaren 17an, 18 urte beteko baitira Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuenetik. Aurkeztutako testua, aho batez onartu zen azken plenoan.

Ziklomotorrek ere ITVa pasa behar dute

Maiatzaren 22tik 29ra Askatasuna plazan, baina hitzordua eskatu behar da

Lege berriak hala dio: hemen-dik aurrera, hiru urtetik gorako ziklomotorrek ITV-IATa pasatu behar dute. Herrian erroldatuta dauden motorren kopurua handia dela ikusita, errebisioa Usurbilen bertan egin ahal izango da. Hori dela eta, motorra dutenek -eta motor horrek hiru urte baino gehiago baditu- ibilgailuaren azterketa teknikoa herrian bertan egiteko aukera izango dute, maiatzaren 22tik 29ra. Askatasuna plazan, azoka egiten den aterpean, jarriko dute errebisioa egiteko gunea. Hori bai, aldeztu aurretik hitzordua hartu behar da, udaltzaingora deituz.

Ekainaren 9ko 711/2006 Errege Dekretuaren arabera, hiru urte baino gehiago dituzten ziklomotorrek (50 z.k. baino gutxiago dituen eta 45 k./o. abiadura gaituzten ez duten bi gurpileko ibilgailuak) Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) derrigorrez pasa behar dute.

PREZIOA, 22 EURO

“Lege berriaren arabera, hiru urtetik gorako motor guztiek IAT-ITVa pasa behar dute”

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) IAT-ITV pasatzeko eskumena duenez, 2007ko otsailaren 13ko aginduaren bidez, EAEko ziklomotorrek IAT-



ITVA PASA AURRETIK, HITZORDUA HARTZEKO UDALTZAINGORA DEITU BEHAR DA, 943 361 112 TELEFONO ZENBAKIRA DEITUZ.

ITV pasatzen hasteko epea irekitzea agindu du.

Hori dela eta, datorren maiatzaren 22tik 29ra, IAT-ITV estazio mugikor bat egongo da Askatasuna plazan (azoka egiten den aterpean), 9:00eta-

tik 14:30ak arte. Dena den, aldeztu aurretik hitzordua eskatu behar da. Udaltzaingora deitu, 943 361 112, goizeko 8:30etik 14:30ak bitartean, eta hartu ordua. Ordaindu beharreko tasa 22 eurokoa izango da.

Kontuan hartzeko datuak

NORI ZUZENDUA:

3 urte baino gehiagoko ziklomotorrak dituztenei (50 z. k. baino gutxiago dituen eta 45 k./o. abiadura gaituzten ez duten bi gurpileko ibilgailuak).

NOIZ: Maiatzak 22 / maiatzak 29.

NON: Askatasuna plazan, 9:00etatik 14:30ak arte.

HITZORDUA HARTU BEHAR DA: Udaltzaingora deitu, 943 361 112. goizeko 8:30etik 14:30ak arte.

ORDAINDU BEHARREKOA: 22 euro.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Kantua sendagarri

Maddi Oihenart kantaria Sutegin izango da larunbat honetan

Lehenagotik ere hainbat lan kaleratutakoa izan arren, “Hari biru” da taldean egin eta bere izenean argitaratu den lehen diskoa. Maddi Oihenart eta berea taldeaz ari gara. Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatuta, larunbat honetan, maiatzak 10, gaueko 22:30ean Sutegin eskainiko dute emanaldia. Sarrerak jada salgai daude.

Nora doan jakin ezin den bere kantari ibilbideko hari pusketa gisa definitzen du Maddi Oihenartek, “Hari Biru” bere lanik berriena. Hari horren bila dabil bere azken lanean. Munduko jendarteak irudikatzen duen hari pusketa garelara ere esan nahi du aipatu izenburuak.

Bere izena eraman arren, taldean egindako diskoa da Sutegin aurkeztuko duena, berriki azpimarratzen baitzuenek, “nire kantatzeko beharra, besteekin izateko beharrarekin lotua dago”. Kantua beretzat hitza da, aldeztu aurretik pentsatu gabe, momentuan sortu, pertsona batetik abiatu eta kantatzearekin kolektibo batera hedatzen dena. Sendagarria modu berean, arazo pertsonal guztiez ahazteko.



MADDI OIHENARTEK ETA BERE TALDEAK “HARI BIRU” LANIK BERRIENA AURKEZTUKO DUTE SUTEGIN MAIATZAREN 10EAN, GAUEKO 22:30EAN.

Lan honen sortze prozesuan, alboan izan ditu Juantxo Zeberio, Pello Ramirez, Txema Garcés, Mikel Andueza, Asier Oleaga, Anjel Unzu, Xabier Paizajiño eta Xabier Zeberio. Karlos Linazasorok, Itxaro Bordak eta Maialen Lujanbioren testuak dituzte.

ARITZ GORRITI

Sarrerak eskuragarri

Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatutako emanaldia Sutegin eskainiko da larunbat honetan, maiatzak 10, gaueko 22:30ean hasita. Sarrerak aldeztu aurretik **Lizardin** eta **Mahukan** eskura daitezke **8 eurotan**. Edo egunean bertan, **Sutegin, 10 eurotan**.

“Bentazarreko mutiko alaiak”, larunbat arratsaldea alaituko duen kalejira

Urrestillatik eta Urretxu-Zumarraga herrietatik datoz “Bentazarreko mutiko alaiak” taldea. Euskal kanten erreperitorioa baliatuta, maiatzaren 10eko arratsaldean herriko kaleak girotzera hain zuzen.

Musika instrumentu ugari hartuta, eskusoinua, biolina, gitarra, dultzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa dutela herriko kaleak zeharkatuko dituzte

larunbat honetan, maiatzak 10, “Bentazarreko mutiko alaiak” boskoteak. Jexux Artze Kultur Elkarteak gonbidatuta etorriko den taldea, 2006ko udan osatu zuten.

Maddi Oihenartek eta bere taldeak eskainiko duten emanaldiaren aurretik ibiliko dira kalez kale, 18:00-20:30 artean. Euskal kanten erreperitorioari astindu ederra emango diote afaltzeko ordua ailegatu artean.



18:00-20:30 ARTEAN ESKAINIKO DUTE EMANALDIA KALEZ KALE.

“Gaurko menua” antzezlanana, ostiral gauean Sutegin

Ane Gabarain eta Lierni Fresnedo dira “Gaurko menua” antzezlaneko protagonistak. Sukalde koipetsu batean lan egiten dute eta bertako atsekabeak eta ametsak partekatuko dituzte aurrean duten Sutegiko publikoarekin batera.

Eguna lanean igaro eta bizitzan alaitasunik ez duten Pepik eta Txelok, lehiaketa bat irabaztea, horixe da duten irtenbide bakarra. Emakumea, bere sentimenduak edota nahiak azaleratzen ditu “Gaurko menua”-k, kutsu sozialeko komedia gazi-gozaok. Dar-Dar produkzioak-en antzezlanana da. Jexux Artze Kultur Elkartek antolatutako emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da. Sarrerak 8 eurotan salgai aldeztatik Mahukan eta Lizardin. 10 eurotan egunean bertan.



“GAURKO MENUA” SAIOKO
PROTAGONISTAK; ANE GABARAIN
ETA LIERNI FRESNEO.

Asteburu honetan
zabalduko da “Hotsez
hots” erakusketa

Plex-ek azken bi urteotan txalapartari lotuta sortu dituen lanekin “Hotsez hots” erakusketa osatu du. Ostiralean, maiatzak 9, inauguratuko da Sutegin, 19:30ean. Maiatzaren 25era arte, Sutegin eta Barrenkalen zabalik. Orduetgia: astegunak 18:00-20:00, larunbatak 12:00-14:00/18:00-20:00. Igandeak, 12:00-14:00.



Potxoenea kultur etxe bihurtzeko

proposamena aztertu zen Kultura Aholku Batzarrean

Potxoenea kultur ekipamendu bihurtzeko egitasmoa ez da berria. Udalak, herritarren eta bereziki kultur eragileen iritzia bildu nahi du. Kultura Aholku Batzarrean azken bileran Potxoenea izan zen aztergai nagusia.

Kultur taldeak, eragileak, udal teknikariak eta udal ordezkariek biltzen ditu bere baitan Kultura Aholku Batzarrak. Bilerak irekiak izaten dira eta hilabetean behin bildu ohi da. Maiatzaren 7an

bildu zen azken aldiz eta Potxoenearen balizko erabileraz hitz egin zen.

Maiatzaren 19an,
Jai Batzordearen bilera

Bestetik, Santixabeletako Jai Batzordeak ere hainbat bilera egin ditu. Datorrena maiatzaren 19an astelehena izango da, Sagardo Egunaren bihar-munean. Arratsaldeko 19:00etan udaleko areto nagusian.



POTXOENEA HUTSIK DAGO
ASPALDITIK.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, beheak - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Asteburu honetan hasiko dira haur eta helduen danborraden entseguak

Asteburu honetan hasiko dira danbor hotsak Agerialde partean. Jaietan arituko diren haur zein helduen danborradetako kideak asteburu honetan bertan hasiko dituzte entsegu-lanak.

Haurren danborradarako bilera asteazkenean egin zen eta lehen entsegua larunbat honetan egingo dute Agerialdeko patioan, goizez, 11:00etatik aurrera.

Helduen lehen entsegua, ostiral honetan Agerialden

Helduen danborradan parte hartu nahi dutenek ere asteburu honetan eman beharko dute izena. Ostiral honetan zabalduko da izena emateko epea eta lehen entsegu saioa ere ostira-lean bertan egingo da. Aipatu bezala, hilaren 9an, 20:30etik aurrera Agerialdeko patioan. Informazio gehiago: 943 371 999.



AURTEN, HAURREN DANBORRADA SANTIXABEL EGUNEAN IZANGO DA, ETA HELDUENA, ORDEA, UZTAILAREN 1EAN ARRATSALDEZ.

Haurren danborrada uztailaren 2an, Santixabel egunean izango da, 12:00etan. Helduak aldiz, bezperan eta bitan irtengo dira danborra jotze-

ra. Uztailaren 1ean arratsaldez, 19:00etatik aurrera eta gauerdian, txupinazoa udaletxeko balkoitik jaurti eta gero.

Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko epea ireki da

Santixabeletarako gero eta gutxiago falta da. Baina oraindik bada paper mutur batean bertso batzuk idazteko denbora. Bota Punttubak, behintzat, egina du Bertsopaper Lehiaketarako deialdia. Uztailaren 1ean amaituko da parte-hartzeko aukera.

Hauek dira Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketara aurkezten denak bete behar dituen baldintzak.

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, uztailaren 1a baino lehen, Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXI. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170

Usurbil.

- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.

- Aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe utz daitezke.

- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10.

- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Erabakia uztailaren 6an emango da ezagutzera, jailetako bertso saioan.

Begoña Riverok eraman du eskubaloi taldeko mariskada

Maiatzaren 1ean zozketatu zuten mariskada Begoña Riverok irabazi zuen, berak erosi zuelako 3.025 zenbakia. Usurbil KE eskubaloi taldeko kideek zozketan parte hartzen dutenei eta Bruñori eskerrak eman nahi dizkiete.



Aitzagako Mus Txapelketa azken txanpan sartu da

Bi jardunaldi baino ez dira geratzen Aitzagako Mus Txapelketa amaitzeko. Azken aurrekoa Txokoaldeko Erroizpe elkartearen jokatu da ostiral honetan, maiatzak 9. Gaueko 22:00etan hasiko den jardunaldian finala zertan geldituko den zehaztuko da.

Hilabete barru amaituko da zazpi jardunaldiz osatua dagoen Aitzagako Mus Txapelketa. Parte hartzaileak elkarte aritu dira musean, izenak hartzen duen egoitzan, itxiarazitako Aitzagan izan ezik. Azken aurrekoa, seigarrena, Txokoaldeko Erroizpe elkartearen jokatu da. Parte hartzeko asmoa dutenek, beti bezala, 20 euro ordaindu behar dituzte. Mus saioa gaueko 22:00etan hasiko da. Jokalari batek baino gehiagok gau horretan zer modutan jokatzen duen erabakigarria izango da, txapelketa azken jardunaldia baldintzatu baitezake.

Lehen lauertzat sariak

Zazpi jardunaldietan parte hartzen aritu direnak puntuak pilatzen joan dira. Ekainean sailkapen orokorrean lehen lau postuetan gelditzen direnek sariak jasoko dituzte. Bestalde, orain arte bezala, jardunaldi bakoitzeko lehen lau sailkatuak ere ez dira esku hutsik geratuko. Irabazleek bi arkume, mariskoa eta xanpaina eskuratuko dituzte. Bigarren postuan sailkatzen direnek, lau untxi, txangurroak eta xanpaina. Hirugarren eta laugarren gelditzen direnek, bina untxi eta txangurroak.

Lehia estua

Apirila hasieran jokatutako norgehiagokan Juan-Joxian izan ziren garaileak, finala Arkaitz-Beltza bikotearen aurka jokatu ostean. Garaipen horrek ordea, ez du sailkapen buruan inolako aldaketarik eragin. Momentuz, Juantxo-Aitor nagusi dira. Hala ere, lehen postuen artean dagoen puntu tartea oso txikia da.

Ariketa fisikoari buruzko hitzaldia antolatu dute Esperientzia Tailerrekoek

Ikasturte honetan, Esperientzia Tailerrekoek hainbat arlo landu dituzte, tartean, ariketa fisikoak egitearen garrantzia. Maiatzaren 12an, ariketa fisikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Jesus Roldan soinketa irakasleak. Hitzaldia irekia izango da bertaratu nahi duen ororentzat. 16:00etatik aurrera, Sutegiko auditorioan.



MAIATZAREN 12AN ARRATSALDEKO 16:00ETAN HASIKO DA HITZALDIA.

Baratze bat sortzeko asmoa dutenentzat ikastaro egokia

Alkartasuna kooperatibak 100 urte beteko ditu aurreten. Arrazoi hori tarteko, hainbat jardunaldi antolatuko ditu. Aurreko astean, lurraren ongarritzea izan zen aztergai nagusia Sutegin. Ostiral honetan, hilak 9, baratze bat sortzeko ze pauso eman behar diren azalduko du Koldo Lizarralde Igeldon duen baratzean.

Ostiral honetan eskainiko duen hitzaldian, eta baita ondorengo ikastaroan, baratze bat sortzeko ze pauso eman behar diren azalduko du Koldo Lizarralde, bai landa eremuan eta baita etxeetako balkoi eta terrazetan ere.

NOIZ: maiatzak 9 ostirala, arratsaldeko 19:00etan.

NON: Alkartasuna kooperatiban elkartu eta handik Igeldora, Koldo Lizarralderen baratzerara.



AURREKO ASTEKO HITZALDIAN, LURRAREN ONGARRITZEA ETA KONPOSTA AZTERTU ZIREN.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

ARRAINDEGIA

PELLO

Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

CLIMATA-T

klimatizazio orokorra

687 858 390
climata_t@yahoo.es

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kosmodisea lehiaketa irabazi du Lasarte-Usurbil Institutuak

Gipuzkoako Foru Aldundia-ren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako departamentuak urtero antolatzen duen lehiaketa da Kosmodisea. Lasarte-Usurbil Institutuko batxiler mailako taldeak lehen saria irabazi du.

Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleek hiru lan multimedia egin behar izan dituzte: irratsaioa, argazki eta irudiekin egindako aurkezpen bat eta bideo bat. Eta lehiaketa honen helburuak hauek ziren: baliabide tekniko berrien erabileran trebatzea, ikasleen arteko eztabaida, ekimena eta lankidetzatzea.

Iaz hirugarren, aurten garaile Batxiler mailako lehiaketan, Lasarte eta Usurbilgo institutuak lehen saria jaso du. Iaz hirugarren saria lortu bazuen ere, aurten lehengo saria eskuratu dute. Sarituak izan diren ikasleak honako hauek izan dira: Jon Pello Artetxe, Erik



KOSMODISEA LEHIAKETA IRABAZI DUTEN IKASLEAK, KURSALEN.

Arzalluz, Leire Lazkano, Iker Eneko Ortega eta Irati Perez. Hauez gain, beste ikasle batzuk ere hartu dute parte, eta laugarren postuan sailkatu dira: Idoia Delgado, Amaia Iglesias,

Olatz Larrañaga eta Jon Osa, guztiak Karlos Kortabarria irakasleak koordinatuta.

Ikastetxeak ikasle eta irakasleen lana goraiatu nahi izan du.

Lehen batxiler mailakoak, Esperimentaldia jardunaldietan

Donostiako Kutxa-espazioak antolatu berri duen Esperimentaldia jardunaldian, lehen batxiler mailako ikasle talde batek hartu du parte. "Laborategi teknikak" ikasgaia ematen duen Mikel

Martinez irakaslearekin batera izan dira Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleak. Sagar-dotegiko menuaren azterketa egin zuten eta, jaki horiekin egin daitezkeen hainbat esperimentu gauzatu zituzten.



ESPERIMENTALDIAN IZAN DIREN IKASLEAK.

URDAINTZI S.L.
grafikuntza

4343 4343 4343
4343 4343 4343
4343 4343 4343

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enca. 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Ostiral honetan Usurbil-Azkoitia, Herri Arteko Pilota Txapelketan

Etxean uso eta kanpoan otso. Hala izan zen Usurbil eta Lasarte-Oria arteko kanporaketa. Joaneko partidak Usurbilgo frontoian jokatu ziren eta lasartearrak izan ziren nagusi. Buelako partidak Lasarten izanda, gutxik espero zuten ezustekorik. Usurbil berriz ere Herri Arteko Txapelketatik kanpo ikusten genuen askok eta askok. Baina usurbildarrak gogotsu kantxaratu ziren eta kanporaketa nagusitza lortu zuten. Lasartekoak kanporatu eta gero, orain azkoitiarrak izango dira usurbildarren aurkariak. Ostiral honetan, joaneko partidak jokatu dira Usurbilen, 19:30etik aurrera.

Herri Arteko Txapelketa-Kutxa Sariaren joaneko partidak apirilaren 25ean jokatu ziren, Usurbilgo frontoian. Lasarte-Oria aurreratu zen, 2-1 irabazi eta gero. Buelako partidak aurreko asteburuan jokatu ziren Lasarte-Orian, baina Usurbil nagusitu zen, 3-0. Enrike Huizik azaldu digunez, "lehenengo bi partidak irabazi eta gero, nahikoa ziren 10 tanto egitea nagusien partidan", eta baita lortu ere.

Horri esker, Usurbilek aurrera egin du Herri Arteko Pilota Txapelketan. Azkoitia izango da hurrengo aurkaria. Eta ez da lan erraza izango. Azkoitiarrak txapeldunorde izan ziren 2005ean, eta txapeldunak 2006an.



USURBIL ETA AZKOITIA ARTEKO PARTIDAK USURBILEN JOKATUKO DIRA OSTIRAL HONETAN; ETA SANTIXABEL TXAPELKETAKO PARTIDAK AGINAGAN.

Joaneko partidak ostiral honetan jokatu dira, hilak 9, arratsaldeko 19:30ean Usurbilgo frontoian.

AURKARI GOGORRA

"Azkoitiarrak txapeldun-
orde izan ziren 2005ean,
eta txapeldunak 2006an"

Azkoitia eta Usurbil arteko norgehiagokan, hauek izango dira lehia-tuko direnak:

Kadeteen mailan, Aizpuru-Larrañaga eta Xabier Santxo-Markel Galarraga bikoteak.

Jubeniletan, Epelde-Epelde eta

Imanol Esnaola-Eñaut Esnaola bikoteak.

Eta Nagusietan, Andreu-Orbegozo eta Jabier Santxo-Enrike Huizi bikoteak. Zorte on!

Etxean galdutakoa, kanpoan irabazi

Apirilaren 25ean Usurbilen Joaneko partidak

Kadeteak: Lasarte-Oria 7 / Usurbil 22
Usurbilgo pilotariak: Xabier Santxo eta Markel Galarraga.

Jubenilak: Lasarte-Oria 22 / Usurbil 11
Usurbilgo pilotariak: Imanol Esnaola eta Eñaut Esnaola.

Nagusiak: Lasarte-Oria 22 / Usurbil 8
Usurbil: Enrike Huizi eta Iker Zinkunegi.

Maiatzaren 3an Lasarte-Orian Itzulerako partidak

Kadeteak: Lasarte-Oria 6 / Usurbil 22
Usurbilgo pilotariak: Xabier Santxo eta Markel Galarraga.

Jubenilak: Lasarte-Oria 15 / Usurbil 22
Usurbilgo pilotariak: Imanol Esnaola eta Eñaut Esnaola.

Nagusiak: Lasarte-Oria 17 / Usurbil 22
Usurbil: Jabier Santxo eta Enrike Huizi.

XXXVI. Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

MAIATZAK 9, 19:00 AGINAGAN

Nagusiak
Andreu – Irureta (Elgeta)
Vicente - Boto (Zaramaga)

Zerezo – Uharte (Bera)
Andueza – Epelde (Azkoitia)

Arraztoa – Landiribar (Burlata)
Atxotegi – Loiola (Elgoibar)

MAIATZAK 10 LARUNBATA, GOIZEZ 10:30

Jubenilak
Segurola – Etxeberria (Zumaia)
Larreategi – Rezusta (Bergara)

Artete – Arteaga (Lasarte)
Zabaleta – Salaberria (Goizueta)

Pagola – Garmendia (Urnieta)
Arzelus – Urteaga (Lazkao)

MAIATZAK 11 IGANDEA, GOIZEZ 10:30

Jubenilak
Asteasuinzarra – Araico (Zaramaga)
Arribillaga – Lizarralde (Elgoibar)

Nagusiak
Albarado – Torres (Zaramaga)
Etxeberria – Fernandez (Antigua)

Eskudero – Sagaseta (Añorga)
Agirre – Uribarren (Arrasate)

Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.30	10.40	10.45	>>	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.30	13.40	13.45	>>	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.30	14.40	14.45	>>	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	16.30	16.40	16.45	>>	17.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.10	19.30	19.35	19.45		19.30	19.40	19.45	>>	20.10
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	20.45	20.55	21.05	>>	21.10
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.15	21.25	21.35	>>	21.40
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

- Eguneko goardiako farmaziak**
- Maiatzak 8, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 - Maiatzak 9, ostirala
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
 - Maiatzak 10, larunbata
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*
 - Maiatzak 11, igandea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 - Maiatzak 12, astelehena
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
 - Maiatzak 13, asteartea
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte
 - Maiatzak 14, asteazkena
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
 - Maiatzak 15, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
 - Maiatzak 16, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
 - Maiatzak 17, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*
 - Maiatzak 18, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
- GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
 Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
 kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
 *Usurbilen, soilik eguerdira arte

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
 14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 7:15* / 9:00 / 12:45(T)
 13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
 Zubieta-Donostia
 8:15(T) / 12:45
 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
 Zubieta-Donostia
 11:25(T) / 13:30(T)
 15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
 (Gipuzkoa plazatik)
 11:00(T) / 13:00(T)
 15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldageta beharrezkoa da
 *: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !

Maiatzak 9, ostirala

- Ze pauso eman baratze bat sortzeko, hitzaldi-ikastaroa, Koldo Lizarralderen eskutik. 19:00etan Alkartasuna kooperatiban. Sarrera doan.
- "Hotsez hots" erakusketaren inaugurazio ekitaldia. 19:30ean Sutegin.
- "Gaurko menua" antzerkia Sutegin. 22:00etan. Sarrera, 8 euro alde aurretik Lizardin eta Mahukan, 10 euro egunean bertan Sutegiko leihatilan.

Maiatzak 10, larunbata

- "Bentazaharreko mutiko alaiak", 18:00etatik aurrera kalejira.
- Maddi Oihenart eta bere taldearen kontzertua. 22:30ean Sutegin. Sarrera, 8 euro alde aurretik Lizardin eta Mahukan, 10 euro egunean bertan Sutegiko leihatilan.

Maiatzak 12, astelehena

- Hitzaldia: ariketa fisikoa. Arratsaldeko 16:00etan, Sutegin. Hizlaria: Jesus Roldan. Sarrera, doan.

Maiatzak 15, osteguna

- San Ixidro eguna. Meza nagusia izango da eta ondoren hamaiketakoa.

Maiatzak 16, ostirala

- Morau eta Agotak, kontzertua Sutegin. 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan, alde aurretik salgai Txiribogan, Txirristran eta Etumeta euskaltegian. Egunean bertan, 7 euro.

Maiatzak 17, larunbata

- Aurora Parraren kantaldia, musika klasikoko kontzertua. 19:30ean Sutegin. 22:30ean.

Maiatzak 18, igandea

- Sagardo Eguna.

Hastera doa

Usurbil Cup Txapelketa

Herriko gaztetxoak zain zeuden. Eta azkenean iritsi da Usurbil Cup Txapelketa jokatzeko garaia. Maiatzean hasi eta Santixabel jaietan jokatuko dira finalak. Hori bai, izena emateko epea aste honetan amaituko da.

Usurbil Cup txapelketako partidak herriko frontoian jokatu dira, ostiral eta larunbat arratsaldetan. Lau dira antolatutako diren mailak: benjaminak (1998-1999), alebinak (1996-1997), infantilak (1994-1995), kadeteak (1992-1993).

Izena emateko, taldeek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Talde bakoitzean gutxienez 7 jokalaria.
- Maila bakoitzean gutxienez 5 talde osatu beharko dira.
- Talde bakoitzak 16 urtetik gorako entrenatzaile bana izan beharko du.



IZENA EMATEKO EPEA ASTE HONETAN AMAITUKO DA.

Izen-ematea, 40 euro

Txapelketako gastuei aurre egiteko talde bakoitzak 40 euro jarri beharko ditu.

Taldearen izena, maila, dirua eta jokalaria bakoitzaren zein entrenatzailearen NAN fotokopiak sobre batean utzi beharko dira Oiardo kiroldegian. Izena emateko epea maiatzaren 7an amaituko da.

KzGuneko ikastaroak maiatzean

MAIATZAK 12 ASTELEHENA
IT txartela, azterketa eguna
18:00-20:00

MAIATZAK 15 OSTEGUNA
Ikastaroa: Eustat
18:00-20:00

MAIATZAK 16 OSTIRALA
Ikastaroa: Sinadura elektronikoa
18:00-20:00

MAIATZAK 19 ASTELEHENA
Ikastaroa: Via Michelin-ekin
bidaiatu, 16:00-17:00

MAIATZAK 19 ASTELEHENA
Ikastaroa: Itzultzaileak
17:00-18:00

MAIATZAK 19-20
Ikastaroa: Irudi digitalen
tratamendua I, 18:00-20:00

MAIATZAK 20 ASTEARTEA
IT txartela, azterketa eguna
16:00-18:00

MAIATZEAN KzGUNEA:
arratsalde 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. Tel.: 943 361 412.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera amaten du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 49.800.000 pta. Tf: 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egocera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukalde, egongela eta trasteroa. Berriua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua,

komuna, sukalde, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Sukalderako emakume bat behar da, Usurbilgo taberna baterako. 943 36 87 71.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarte-ka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein

etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriari umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazaletan itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txurigorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikiritxa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak! Kinto bazkaria ospatu zuten lehengoan. Bapo bazkaldu eta gero, erretratu hau egin zuten. Bejondeizuela!

JAIOTZAK

Paula Sambade Andujar, apirilaren 28an jaio zen.

Nahia Gonzalez Retege, apirilaren 28an jaio zen.

Oharra: *Jaiotzak,* Usurbilgo Bake Epaitetigit jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefonora: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com



Zorionak Enaitz! Maiatzaren 1ean 2 urte egin dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Malen! Maiatzaren 13an sei urte beteko ditu gure etxeko sorgina. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat.




HILDAKOAK

Felisima Marques Sanchez Maiatzaren 1ean hil zen 65 urterekin, Kaleberri



HILDAKOAK

Patxi Olaizola Mendizabal Apirilaren 28an hil zen 71 urterekin, Santuenea



'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO' liburua

Euskal Herriko

hondartzak, kalak, itsaslabarrak, uharteak, begiralekuak, ibilbideak, naturgune babestuak eta beste.

Euskal kostaldea ezagutzeko 121 amu jarri dizkizugu liburu honetan. Aturitik Muskizeralino dagoen 255 kilometro inguruko kosta Ierloan denetarik aurkituko duzu.

Gidan, euskal kostaldean bidaia zoragarri bat abiatzeko informazio oinarritzkoena topatuko duzu, etxetik kilometro gutxira dituzun hamaika bazter eder ezagutzeko ibilbideak.



Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Maiatzaren 10ean, larunbata, BERRIarekin.

2.- Kupoiak itsatsi

Maiatzaren 10etik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 5.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta handik aste eta erdira, kiosko berean izango duzu liburua, **3,40 €-ren truke** jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete behariko, baizik eta zuzenean deitu behariko duzue Harpidetza telefonora: (0034) 943-30 43 45.

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriarekin



HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:

Nahikoa izango duzue **943 30 43 45** telefonora deitzea edo **www.berria.info** helbide elektronikoan izena ematea, eta **3,4 euroren truke** etxean jasoko duzue liburua.

plis plas txalo tajolas 08

Kalezar plazan:
KALEZAR PLAZAN
ANIMAZIO TALDEAREN
"JOLAS TXOKOAK"
1:00h
M24

Santuonea elkarteak:
SANTUONEA ELKARTEAK
"ZUK ZUK JAUNAREN ALFABETOA"
1:00h
M31

Zubietako frontoian:
ZUBIETAKO FRONTOIAN
POTXIN ETA PATXINEN
"HIRIAN ZE BERRI?"
1:00h
E14

Aginagako ludotekan:
AGINAGAKO LUDOTEKAN
ANE MEABEREN
"MARILURREK AITONA KOXME SALBATU DU"
1:00h
E7

Kaxkoa, herriko frontoian:
KAXKOA, HERRIKO FRONTOIAN
TXAN MAGOA.
1:30h
E19

Antolatzailea:

Noaua!
www.noaua.com

Laguntzailea:

